

EKIN ETA EKIN

Herria ezagutzen





EKIN ETA EKIN

Herria ezagutzen

Argitaratzailea: Arrasateko Udala. Hezkuntza Saila

Egilea: Arrasateko Hezkuntza Saila, Hik Hasi Euskal Heziketarako aldizkariarekin elkarlanean.

Ilustrazioak: Aitziber Alonso.

Diseinua:  zure balioen marka

Argazkiak: Udal artxibategia (Zerrajera funtsa, Paisajes españoles -debekatuta beraien erreprodukzioa eta Indalecio Ojanguren-). Kulturate. Jose Letona funtsa. Jose Maria Lasagabaster "Bentxes". http://www.euskomedia.org/ahunamendi.Arizmendarreta_funtsa.Santamas_komisiñue. www.euskaraz.net. Koldo Mitxelena Kulturenea. CC By Nc-Sa. 25. orriko argazkia J.Luis Zumetaren irudia da. Arrasateko Udaleko Hezkuntza Saila.

Inprimatzailea: Gertu

LG: SS-1026/2010



ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

hh
hik hasi

1960ko hamarkadaren bukaeratik 1970eko hamarkadaren bukaera arte, ilusio eta itzaropen garaia zabaldu zen herrian.

1968an Biteri eskolak bota zituzten.

1970ean herrian 22.421 biztanle bizi ginen, 1960an baino 8.000 gehiago eta populazioaren %38 19 urtetik beherakoa zen.

1971ean "Danok" elkarteak "Kanta berri" jaialdia antolatu zuen euskarazko kanta suspertzeko.

1975an frankismoa bukatu zen eta kultura elkarteak, elkarte gastronomikoak, jai batzordeak eta alderdi politikoak sortu ziren herrian eta elkartegintza borborka izan zen.

Industria zen hirigintzaren ardatza, baina hirigintzaren ikuspegitik herria aldatzen hasi zen poliki- poliki.



Begiratu argazkiei. Zer dakizu horietaz?



1 Lurra azaleratzea



2 k.a 150.000-80.000
Lehen biztanleak Lezetxikin



k.a. 40 milioi

k.a. 150.000

k.a. 100.000

k.a. 30.000

k.a. 22.000

k.a. 6.000



3 k.a. 6.000
Neolitikoa:
bizimodu aldaketa

k.a. 500

800

4 824-1620
Nafarroako erresuma



12 1902
Biteri eskolak



11 1794/ 1833/ 1872
Gerra diputazioa/
gerra karlistak



10 XV - XVI. mendeak
Altzairugintzaren
apogeo



1900

1800

1700

13 1906
Union Cerrajeraren
sorrera



14 1918
Trenaren iritsiera



15 1936
1936ko gerra



1910

1920

1930

24 1990ko hamarkada
Espekulazio inmobiliarioa



23 1983
AEDren sorrera



22 1980ko hamarkada
Krisi ekonomikoa



1980

25 1991
AGAKOren sorrera



2000

26 2003
Emakume txokoaren
irekiera



27 2001-2013. XXI.mende
Migranteen etorrera




k.a. 10.000

5 1200
Nafarroako mendebaldearen konkista



6 1260
Gaztelako hiri gutuna



"Por favor que avemos de fazer bien a merced a tos los pobladores de la puebla que es en leniz, que avie ante nombre arresate, a que nos posemos nombre mondragón"


7 1353
Herria osatzen



9 1500
Baserriaren sorrera



8 1448
Arrasateko erreketak



16 1942
Uholdeak



17 1943
Eskola profesionalaren sorrera



Eskola Politeknikoa
JOSE MARIA ARIZMENDIARRIETA
MONDRAGON

18 1956
Kooperatiben sorrera



21 1979
Frankismoaren ondoko 1. Udal hauteskunduek



20 1975/ 1976/ 1977
Haratuzteak/ Santamasak/ Maritxu kajoi



19 1960ko hamarkada
Herriaren hazkundea/ migranteen etorrera



2010

28 2007-2013.....
Krisi ekonomikoa eta finantziarioa



29 1913 - 2013
Futbolak 100 urte Arrasaten





Zelan sortu ziren gure lurrak eta mendiak?

.....
.....
.....

Zelan izan dugu horren berri?

.....
.....
.....

Herriko lehen biztanleak non bizi ziren?

.....
.....
.....



Euskal Herriko giza aztarnarik zaharrena non aurkitu zuten? Zein aztarna zen? Gaur egungo zein auzotan dago?

.....
.....
.....

Kobazuloak ez direnak, ezabatu.

- | | | | |
|-----------------|--------------------|-------------------|-------------------|
| Zaldibar | Atxabal | Uribarri | Garagartza |
| Oterreta | Garagartza | Lezetxe | MAKATZENA |
| Leibar | Etxaluze | San Andres | Musakola |
| LEZETXIKI | Labeko koba | Udalatx | Santamaña |

Nafarroako erresumaren baitan zein 4 herrik osatzen zuten Leintz bailara (Aitzorrotzia)?

1200ean, bailara konkistatutakoan, Gaztelako erregeak 1260an hiri gutuna eman zion Arrasateri. Horrek zer nolako aldaketa ekarri zion herriari?



Zein elizate eta toki atxiki zitzaizkion Arrasateri 1353an?

- Uribarri
- Musakola
- Isasigaña
- Makatzena
- Santamaña
- Olega
- San Andres

- San Andres
- Oleaga
- Udala
- Zaldibar
- Musakola
- Meatzerreka
- Bedoña

- Uribarri
- Garagartza
- Gesalibar
- Udala
- Enuzketa
- Isasigaña
- Oleaga

- Bedoña
- Garagartza
- Gesalibar
- Erguin
- Musakola
- Meatzerreka
- Santa Teresa

Arrasaten meategien jarduera antzinatik lantzen zen eta altzairua ezaguna zen munduan, baina zein auzotan zeuden meategiak?



Arrasateko erreketarik handienetakoa noiz izan zen?. Nortzuk erre zuten herria? Zergatik?

Gaur egun, Erdi Aroko kale, eraikin edo elementuren bat badago herrian? Hausnartu eta saiatu zaitez ipintzen dauden guztiak.



Nolako bizimodua zuten herritarrek?

Aipatu hiribilduan eta hiribildutik kanpo zeuden ogibideak.

HIRIBILDUAN



LANDAN



1353an herria handitu egin zen, meategien ustiaketa-
ren ondorioz biztanleria ugartu egin zen eta denak ez ziren
sartzen harresien barruan. Harresietatik kanpo zein
erreal eraiki ziren?



Lehendabiziko industrializazioarekin, 1900-1920, lantegiak eta biztanleak ugartu ziren herrian eta trenak garrantzia izan zuen. Noiz izan zen bigarren industrializazio handia?

Zein auzo sortu ziren XX. mendeko 1960 eta 1970eko hamarkadetan?. Aipatu bost auzo.

Kontatu zure auzoko jatorriari eta garapenari buruz zer dakizun.



Uholde handiak izan dira herrian, baina zein izan zen handiena?

Herriko erreketako ura garbia al da?.
Horrela bada, nola lortu da aldaketa hori?



Zein parketan jolasten zara zu? Deskribatu parkea eta azaldu zer jarriko eta kenduko zenukeen parke horretatik.

Nola ikusten duzu herriko naturaren egoera, herria kontserbatua al dago? Saiatu zaituz jartzen zeintzuk diren zure ustez, naturari dagokionez, dituen arriskurik handienak? Nola egingo genuke iraunkorrago gure herria?



Zein kirol duzu gustuko egitea edo ikustea. Gogoko duzun kirol horren inguruan, badakizu ezer Arrasaten izan duen historiaz?

KIROLA:

HISTORIA:

Union Cerrajera enpresa ia mende batean herriaren erreferentzia izan da. Badakizu noiz sortu zen? Non zegoen? Eta orain?




Arrasateko kooperatiben oinarriko printzipioak hamar dira. Baten bat gogoratzen al duzu?

Emakumea, hainbat arotan lan munduan bazterturik egon da. Arrasaten, 1969an, emakumeez osaturiko lehendabiziko kooperatiba sortu zen. Badakizu zein den?. Enpresa horrek zein jarduera dauka?

Lehen Union Cerrajerak bere instalazioekin okupatzen zuen esparru handia. Gaur egun zer dago? (Santa Barbaratik argazkia atera.)



- Zein auzotan bizi zara? Aipatu zein zerbitzu (kultura guneak, ikastetxeak, osasun zerbitzuak, industria guneak, merkataritza guneak...). Erdialdean biziz gero berdin. Aipatu zure auzoko (edo erdialdeko) bost kale?



- Kultura-aniztasuna: eskolara sartzean, etorri berriek hartzen duten lehen inpresioa oso garrantzitsua da. Zure eskolara, duela gutxi, ikaskideren bati harrera egin diozue? Zer egin duzue?

- Unitate didaktikoaren arbelean azken mendearen ikastetxe asko ezagutu ditugu. Gaur ikastetxe eta eskola-gune asko daude. Ikertu eta idatzi ahal dituzun eskola-gune guztiak.





Zein da, gehien batean, Aste Santuan jokatzen den Arrasateko joko ezaguna?

- Petanca
- Igelaren jokoa
- Dokea

Arrasateko auzoak dira:

- Erguin, Musakola, Zaldibar
- Dorleta, Intxaurtuxeta, Uribe
- Basabe, Uribarri, Portasol

Gure herriko mendiak dira:

- Udalatx, Murugain, Larragain (Kurtzetxiki)
- Zاراia, Elorretakoaitza
- Aitzorrotz, Gorgomendi

Udalerriko jai nagusiak dira.

- San Juanak (udako solstizioa) eta Santamasak (neguko solstizioa)
- San Nikolas eta Santa Ageda
- Olentzero eta Maritxu Kajoi

Abiadura Handiko Trenaren obrak Arrasateko zein auzotan egiten ari dira?

- Musakolan eta Makatzenan
- San Andresen (Bedoñabe) eta Uribarrin
- Garagartzan eta Gesalibarren

Hiru probintzia batzen dira bertan eta mendizaleen erreferentzia da. Zein da?

- Anporreta
- Besaide
- Murugain

Zein gerratan harrapatu zuten Santa Kruz gerrillaria Arrasaten?

- 2. gerra karlistan
- 1936ko gerran
- 2. mundu gerran

Zein da, tradizioz, landareez egiten den Arrasateko janari "altxorra"?

- Karapaixoa
- Arbigara
- Euskal pastela

Biteri eskolak zeuden tokian gaur egun zer dago?


- Seber Altube plaza
- Biteri plaza
- Zaldibar frontoia

Baserri asko desagertu dira herrian. Honako hauetako batzuk ez dira baserrien izenak.


- Erguin, Larrea, Usaetxe
- Mojategi, Altzibar, Arruenea
- Monterron, Ozteko etxea, Artazubiaga etxea



6 UDALA
Igokundearen ermita



5 MEATZERREKA
Meategiak/altzairugintza



7 GESALIBAR
Bigarren gerra karlista



8 GARAGARTZA
Lezetxiki



9 URIBARRI
1353: Herria osatzen



10 URIBARRI
Ibarreta azkpiko hilketak



11 SAN ANDRES
Kooperatiben sorrera



12 SAN ANDRES
San Josepeko erromeria



4 ERDIGUNEA
Gaztelua/hiribildua



1 ERDIGUNEA
Biteri eskolak



18 SANTA TERESA
Gaztelako hiri gutunaren sinaketaren herriko kale izena



2 ERDIGUNEA 1936ko gerraren Debagoieneko fusilatuen oroitarria



3 ERDIGUNEA
1448ko Arrasateko erreketeta



17 MUSAKOLA
U.Zerrajeraren instalazioak



13 ZALDIBAR
Union Zerrajeraren sorrera



14 ZALDIBAR
Trenaren geltokia



15 BEDOÑA
Baserriak



16 BEDOÑA
"Loramendi"



Umeeek jolastu behar dute bere nortasuna garatzeko. Neskato-mutikoek jolasaren bidez irudimena, fantasia lantzen dute, gozamina eta bizipoza eraginez.



Aro desberdinetan hainbat jolas izan dira eta belaunaldi bakoitzak bere jokoak izan ditu. Joan zen mendeko hainbat jolas eta kantak: anakoskoak, sokasaltoan, tortolesak, pote-potean, pilota-jaurti, alebi-alebika... zeuden.

Badihardugu eta AED elkarteek, Udalaren laguntzarekin "Ahotsak" proiektuaren barruan dihardute jasotzen ondare hori. **Txatxilipurdi elkarteak** bere aldetik, haur jolasen eta kanten bilduma handia eginga du.



Gaur egun, jolasteko teknologia berriez baliatzen gara gehienbat, baina azaldu zuk azkeneko hiru urteotan zertan jolastu izan zaren. Ea hamarreko zerrenda egiten duzun. Geroago, bakoitzak egindakoa partekatu, arbelean jarri eta azaldu zelan jolasten zaren.

1.
2.
3.
4.
5.

6.
7.
8.
9.
10.

Kanpokoek aipatu izan dute Pirinioetan dantzatzen eta kantatzen duen herria izan dela Euskal Herria, eta ohitura ederra izateaz gainera, belaunaldiz belaunaldi euskara transmititzeko balio handia izan du.

Atxia, motxia pirulin pan,
Gure semie errotan,
Errota txikiak klin-klan,
Kandelario, botikario,
Hemen eskuan
Zenbat hatz
Bat, bi, hiru
Lau, bost...

Arre-arre mandako
Bixer Tolosarako
Etzi Panplonarako
Handik zer ekarriko
Zapata ta gerriko
Norendako?
Norendako?
-----dako

Gizendu jaku txarrixa
saltoka dabil herrixa
aintxinako itturrixa
umore barri barrixa

Talua, arto, uruna
eta baserriko lanak,
erakusten bagabiltz baña
lekutan daz horreik danak

Sasoi bateko ohitturak
etorten jaku gogora
tertulixan egoteko
bazan nahikua denpora

Orduko erromeixak
dantza suelto eta ardau,
haxe zan jaixa sanua
oin barriz dana libre dau

Errementari jauna
klunka eta klunka
argi mailukiakin
begirik ez dauka

Gure auspoa oso
berotzen ez bada
etxera perratuta
bueltatuko gara

Suak, lana ta jaia
martxan jartzen ditu
bata itxungi data
bestea ixotu.

Onetsi dezatela guztiak
etxe hontako sendia.
Apal ta txiro dabilzanentzat
oso ugari dut eskerra.
Martiri saindu maitea
dago errukiz betea
berak oparo emango digu
osasuna ta pakea.
Martiri saindu maitea
dago errukiz betea
berak oparo emango digu
osasuna ta pakea.

Aurrez baimena eskatzen diot
etxeko nausi jaunari.
Agate Deunaren goraldiak
abestutzero noa ni.
Aurrez baimena eskatzen diot
etxeko nausi jaunari.
Agate Deunaren goraldiak
abestutzero noa ni.



San Nicolas Coronado
Arzobispo Mariandres
A la Luna, noche y día
Etxeko andre noblia
Egizu, egizu pilia
San Nikolas, triskilistras
Dame una castaña y no quiero más
Aquí estamos cuatro, cantaremos dos
Para San Nicolas, por amor de Dios
Belengo Portaleko ate zabaletan
Hotzak ikaraz dago
Jesus laztoetan. (bis)
Angelitos somos suspi-suspiramos
Lukainka, txorizo
(Neskai) (Mutilai) bapez
(Mutilai) (Neskai) dana

Ezagutuko duzu, ziur asko, hemen agertzen ez den kantaren bat. Zure gurasoei entzunda edo zuk eskolan ikasitakoa izango da, edo zure lagunekin ikasitakoa. Idatzi bertan testua, eta gero kantatu zure ikaskideei. Geroago, bertan dauden sei kanta hauek identifikatu eta denok batera saia zaitzte kantatzen.

.....

.....

.....

.....

1571. GARIBAIKOAK DIO EUSKARA PENINTSULAKO HIZKUNTZARIK ZAHARRENA DELA

Esteban Garibaikoak bere "Compendio historial .." izeneko liburuan dio Penintsulako jatorrizko lehenengo hizkuntzatat jo zuen euskara, garaiko usterik zabalduena onartuz.

1636. KLABERIAREN BERTSOAK:

Erdaraz euskaldunez eta liburua gaztelera egiteagatik bertsoak

" Burlatzen naiz Garibaiez,
Bai halaber Etxabez,
Zenak mintzatu baitire
Erdaraz euskaldunez
.....

1936KO URRIAREN 22AN. EUSKARAZ HITZ EGITEAGATIK JIPOITUA

Isidro Iturbe fusilatu zuten Hernanin. Union Zerrajerako langilea. Nazionalista. Bi guardi zibilek atxilotu zuten, eta kalean bertan ikaragarriko jipoia eman zioten emazteari euskaraz hitz egiteagatik.

1941. URTEA. ESKOLETAN EUSKARAZ EGITEAGATIK ERAZTUNA ATZAMARRETAN

1936ko gerra ostean, kultura eta euskarekiko lotura guztiak debekatzen saiatu zen erregimen garailea, euskararen erabilera modu bat baino gehiagoz zapaltzen:
"Eskolan euskeraz eitiarren aniluak emuten auien. Eta eguenetan eta zapatuetan aniluak aukenak kastigauta geraketan zan"
(Benita Eraña)

1579. PREDIKATZAILE EUSKALDUNA IZAN BEHAR (JUAN DE ARAOZ)

"Item digo que es mi voluntad y deseo que el Rector Guardián de dicho colegio sea en todo tiempo religioso que sepa hablar y predicar en nuestra lengua bascongada, porque su doctrina puede hacer mucho fruto en nuestra villa y su comarca en servicio de Dios y beneficio de los fieles cristianos, naturales de ella..."

1863. ARRASATEKO EUSKALKIA L.L. BONAPARTEK MENDEBALDEKO SORTALDEKO EUSKALKIAREN (BIZKAIERA) BARRUAN SAILKATU ZUEN

1896KO UZTAILAREN 4,5,6 ETA 7AN. GIPUZKOAKO LEHEN EUSKAL JAIK ARRASATEN

Gipuzkoako diputazioak, Anton Abadiak antolatutako jaiak jarraiki, Gipuzkoan lehendabiziko euskara jaiak (lore jokoak) antolatu zituen.

1971KO EKAINAREN 24AN "DANOK" ELKARTEAK ANTOLATU ZUEN "KANTA BERRI" JAIALDIA

1981KO ERROLDAREN DATUAK

Euskaldunen kopurua (ondo edo zer edo zer dakitenak) 12.806 biztanle dira eta erdaldunena (13.403) biztanle.

2012. ZENBAT EUSKALDUN GAREN

2012ko berria 2012an %56 euskaldun, ia euskaldunak %18 eta erdaldunak %26. Erabilera %34.



2025ean. Zein berri emango zenuke euskararen inguruan?



EUSKARA ETA GAZTELERAREN GAINEKO GAITASUNA

	1986		2001		2006		Kop.	%
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%		
Elebidunak	10.961	% 42'64	12.660	% 55'86	11.676	% 54'67		
Elebidun hartzaileak	3.979	% 15'48	4.001	% 17'65	4.113	% 19'26		
Erdaldun elebakarrak	10.766	% 41'88	6.003	% 26'49	5.570	% 26'08		
	25.706		22.664		21.359			

Iturria: Eustat. Eusko Jaurlaritzza



EUSKARAREN KALE ERABILERAREN BILAKAERA ARRASATEN (1988-2011)

ALDIA	Haurrak	Gazteak	Helduak	Adinekoak	Guztira
1988-1990	% 23	% 12	% 11	% 25	% 14
1991-1995	% 36	% 19	% 17	% 27	% 22
2001-2005	% 46	% 41	% 28	% 25	% 31
2006-2010	% 48	% 36	% 32	% 25	% 32
2011	% 49	% 47	% 33	% 23	% 34

Iturria: Arrasateko Udalako Euskara Sailak 2006-2010 aldian egindako neurketetako datuak erabili ditugu Kale Erabileraren adierazle moduan eta Soziolinguistika Klusterrak 2011n egindako Euskal Herriko Kale Erabileraren Neurketan Arrasaten jasotako datuak. Datuak %tan daude.

Haurrak: 2-14 urte Gazteak: 15-24 urte Helduak: 25-64 urte Adinekoak: 65 urte edo gehiago



LANDA-LANA

Ezagutzaren eta erabileran artean tarte handia dago, eta horretan datza hizkuntza baten bizitasuna. Non egiten da euskaraz? Landa-lana egingo dugu. Datu hobeak ala txarragoak espero zenituzten?

Lekua	Euskaraz	Ulertzen du	Gaztelaniaz	NESKAK		MUTILAK	
				amarekin	aitarekin	amarekin	aitarekin

AUKERATZEKO ARRAZIOIAK

.....

.....

.....



- Arrasatearrek euskararen berreskurapen eta erabilera sustatzeko ahalegin handia egiten dihardute eta elkarte asko sortu dituzte horretarako.

AED. Euskararen zein euskal kulturaren normalizazioa lortzeko helburuarekin, 1983an Euskal Herriko lehendabiziko euskara-elkartea sortu zen. Hainbat arlotan lan egiten dihardu: Kultura, literatura lehiaketak, sentsibilizazio arloa, euskararen erabilera areagotzeko hitzarmena, euskalduntzea, "Zahar berri" proiektua eta "TTAK" gazte taldea.



TXATXILIPURDI. 1988an AEDeko haur sailetik sortutako euskara-elkartea, haur eta gazteek euskaraz bizi, gozatu eta jolasteko helburuarekin. Egun, bere jarduera ludoteketan, gazte txokoetan, udalekuetan, Txikilandian, jaietan garatzen du, bai eta gurasoekin ere.



EKIN. 1995ean, AEDtik erakundetuta. Emakumeen euskara-elkartea abian jarri zen. Gaur egun, harrera proiektua martxan du, beste herri batzuetatik etorri diren pertsonen informazioa emateko, hezteko eta laguntzeko.



EUSKALAN. AEDetik sortutako taldea zen, 1987az geroztik "Euskaraz dakixenak ein deixela" kanpainaren bidez ezagutzera eman zen, Arrasateko lantokietan euskararekiko plangintza abiarazteko asmoz. Egun, desagertuta dago.

*"Euskaraz dakixenak
ein deixela"*


GOIENA EGUNKARIA / TELEBISTA / INTERNET / IRRATIA

Arrasate Press 1988an sortu zen, euskarazko herri-astekaria. Arrasate Telebista 1990 euskaraz. ARCOk kudeatu zituen. 2000an Goiena enpresa sortu zen eta bere gain Goiena egunkaria (Debagoieneko astekaria), Goiena telebista (Debagoieneko telebista) hartu zituen. Irratia (udaleko lizentziarekin) bere ardurapean dago. Gaztetxeak Itxungi irratia du.



EUSKAL HERRIAN EUSKARAZ.

Euskalduntzearen aldeko sentsibilizazioa sustatu, euskararen defentsan aritu eta euskaraz bizitzeko grina sortzea ditu helburu.



BADIHARDUGU. Deba ibarreko euskara eta euskalkia helburu izanik, hainbat proiektu ("Ahotsak", "berbeta berue", "aditzak", "hiztegia"... lantzen dihardu.



EMUN.

Lan-mundua euskalduntzeko hizkuntza-zerbitzuak ematen dituen enpresa da, 1997an sortua.



ARRASATEKO UDALA. Udalerriaren hizkuntza-normalizazioan garrantzi handia du, udal mailako hizkuntza-politika egituratzeko. Hainbat proiektu antolatu edo babesten ditu: euskalduntzea, familia transmisioa, komunikabideak, lan-mundua, administrazioa, aisia, kirola, teknologia berriak, kulturgintza...

1990ean Udalaren eta AEDren ekimenez Arrasateko 38 elkarte eta enpresak "euskararen erabilera areagotzeko hitzarmena sinatu zuten. Egun, 120 elkarte baino gehiago dira."GU BE BAI" izenarekin ezaguna da hitzarmena.



- Elkarte asko eta Udala lan handia egiten ari dira ezagutza era erabilera sustatzeko baina zuk ba al daukazu arlo berriren bat ekintzak proposatzeko? Hausnartu eta zehaztu zein izango zen.

EUSKALKIA.

Eskolan euskara batuaz ikasten dugu, baina etxean edo herrian gure euskalkia ere erabiltzen da. Gozoa da entzuteko eta bere ezagutza eta erabilera bultzatu behar genituzke irauñ dezan, geurea delako.

* Azkeneko bi urteotan, **eskola-agen-daren bidez saiatu dira AED, Txatxili-purdi eta Udala** bertako euskalkiaren hitzak berreskuratzen ikasleek ezagut eta erabil ditzaten. Hitzen ondoan jarri bere esanahia batuaz.

HITZA	ESANAHIA
Matrila	
Trill eiñ	
Loerrie	
Doministikue	
Moltzue	
Arekie	
Atximurke	
Beinke	
Bielekue	
Aittejaune/amandrie	
Oreixe	
Takien potien	

GAZTEEN HIZKERA.

Adituek diote nerabeek eta gazteek, hitz egiterakoan euskarazko esamoldeez baliatu beharrean, sarri, gaztelaniaz edo "euskañolez" hitz egiten dutela. AEDk azkeneko urteotan "Saperokerixak" izeneko komikiarekin arlo hau lantzen ari da. Begira gazteleraazko hainbat adierazpen euskaraz nola diren:

QUEDADA	Hitzordua, zittia
EN SU LÍNEA	Bere ilduan, berian
JODER	Izorrai!
¿SE COÑO?	Zer demontre? Zer?

HAY VA LA LECHE!	Ene! Hara!
DEMONIO!	Zer arraixo!
DON PUNTUAL	Puntual jauna/ berantiar jauna

HKA. Hikako forma da euskarak duen ezaugarriarik nabarmenetako bat, erregistro desberdinak dituelako mintzakideak emakumeak ala gizonak diren kontuan hartuta. Begira ondoko testua eta fija zaitez aditzetan.

"Hemen jentiek zenbat sagardau erango jok/jon, pa? **Bajakik/n** sagardue eraten? Neuk **etxuat/etxonat** uste hemen hor behaldekoro giroik sortuko danik. Zeatik eze hemen jentie **jak/jan** ikessitte, gaiñera, jarritte, eta sagardue baino ardaue. Iñiñi, ein bihe **joittuau/joittunagu** kupel pare bat eta sagardue ekarri kanpotik.

Arrasateko hika hainbat arrazoiengatik galtzen ari da, zer egin beharko genuke, zure ustez, eskolan eta herrian hitano forma berreskuratzeke?

.....

ORDENAGAILUA - POSTA ELEKTRONIKOA. Euskarak, teknologi berriekin ere erabili egin behar ezinbestean. Euskara erabiltzen al duzu teknologi hauekin? Zein tresnarekin eta nola?

.....

.....

.....



- Euskaraz ikasten dugu, badakigu baina ez dugu beti erabiltzen .Uneoro, erabakitzen ari gara zein hizkuntzatan komunikatzen dugun.

Nolako harremana dut nik euskararekin? Noiz eta norekin erabiltzen ote dut.... Ikus dezagun!

Idatzi azken aldian kalean, eskolan, etxean egin dituzun gogoko 9 gauza gustukoak-. Euskaraz izan bada berdez idatzi, gaztelaniaz izan bada, gorriz.

- Ikastetxeko eremu bakoitzean egindako neurketen emaitzak:

	Sarrera/irteeretan	Pasilloetan	Jolas garaian	Jangelan	Autobus geltokian/ eskolarako bidean
EUSKARAZ/ GAZTELANIAZ					

NON / NOREKIN	NON / NOREKIN
Beti gaztelaniaz	Beti gaztelaniaz
la beti gaztelaniaz	la beti gaztelaniaz
la beti euskaraz	la beti euskaraz
Batean zein bestean	Batean zein bestean
Beti euskaraz	Beti euskaraz

- Sarri, ohituraz hitz egiten dugu lagun batekin euskaraz edo beste batekin gaztelaniaz. Horregatik, askotan euskaldunekin gaztelaniaz jarduten dugu. Ohiturak!

Erraza ote da ohiturak aldatzea? Proba dezagun!

NIRE ERRONKA.

Norekin egingo dut?
Noiztik egingo du?
Zenbat egingo dut? <input type="checkbox"/> Dena <input type="checkbox"/> Gehiena <input type="checkbox"/> Tarteka
Nola lortuko dut hori?
Lortu al dut?



- Guraso askok ez zekiten euskara eta ikasi egin dute, bere seme-alabekin, lagunekin eta lantokian hitz egiteko. Zure gelan ezagutzen duzu horrelako gurasorik? Hala baldin bada, elkarrizketa egiozu jakiteko euskara ikastarekin izan duen historia eta egin bere **hizkuntz biografia**.



PROIEKTUAREN IZENBURUA:

EGILEAK:

NORI ZUZENDUTA:

AURKEZPEN MOTA:

IRAUPENA:


ERABILITAKO BITARTEKOAK:

SINOPSISIA:


GIDOIA:

IRAGARKIA

 Zenbat urte izango duzu 2025ean?
 Nola ikusten duzu zure burua? Ikasten.....edo lanean.....

 Nola irudikatzen duzu gure herria 12 urte barru arlo hauetan?

ARLOA	
ESKOLA (Nola emango da?)	
OSASUN ARLOA (aurrerakuntzak, gaixotasunak..)	
INFORMATIKA (ordenagailuak, sare sozialak, mugikorrak, tabletak, tresna berriak.)	
ETXE BIZITZAK (Nolakoak izango dira etxeak?)	
MUGIKORTASUNA (nolako autoak? zein erregairekin?)	
LANA (lantokian, etxean, enpresen izaera: kooperatibak, Estatutuko kapitala, pribatuak...)	
DIRUA (eskudirua, txartela, beste metodoen bat...)	

 Zeintzuk dira antzematen dituzun arazo larrienak gure herrian 2025ean?

.....

.....


 Alkatea izango bazina, zein konponbide emango zenieke arazo horiei?

.....

.....

 Gurako zenuke herrian bizi? Zein elkarte edo esparrutan aritu gurako zenuke?

.....

 Antzina beste herri batzuekin osatzen genuen bailara, eta gero, historian, herri bakoitzak bere bidea egin du, baina azkeneko urteotan hainbat gauzatarako eskualdeko herriak elkartzen ari dira: **Debagoieneko mankomunitatea, Goiena komunikazio taldea, Arizmendi ikastola, Goieskola: "Debagoieneko eskola publikoa". Mondragon unibertsitatea. Mondragon elkarte kooperatiba...**

Zure ustez, gero oparagoak izateko zelan egin beharko lukete lan herriek, elkarlanean edo bakoitza bere aldetik?

.....

.....

(...) Pertsonak badu inguru latz bat menperatzeko premia, burruka hortan bizi da eta hori du bere egia.

EKIN TA EKIN bilatzen ditu, saiatze hortan ezin gelditu, jakintza eta argia; bide ilunak nekez aurkitu lege berriak noizpait erditu, hortan jokatzuz bizia.

Pertsonen lana jakintza dugu: ezagutzuz aldatzea, naturarekin bat izan eta harremanetan sartzea.

Eta indarrak ongi errotuz, gure sustraiak lurrari lotuz, bertatikan irautea: ezaren gudaz baietza sortuz, ukazioa legetzat hartuz beti aurrera joatea (...)

HITZAK: "Izarren hautsa" Xabier Lete

* *Pertsonen*: Jatorrizko bertsiotan "Gizonen"

AHOTSA: Mikel Laboa

DISKAREN AZALA: Jose Luis Zumeta





IZAN GINELAKO

ERREMENTARIEN ZALAPARTAPEAN bizi ginen eta

HANDITZEN HANDITZEN joan ginen

GURE ALTXORRAK zainduz eta gozatuz.

IZAN GINELAKO GARA eta

EKIN ETA EKIN jolasteari, kantatzeari, lanari eta euskaraz egiteari, geure herriak iraungo du.



IZAN GINELAKO GARA

Herria ezagutzen

1. Izan ginelako
2. Errementarien zalapartapean
3. Handitzen-handitzen
4. Gure altxorra
5. Izan ginelako gara
6. EKIN ETA EKIN



ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

hh
hik hasi

ci da zure balioen marka

www.arrasate.eus